

EHUko IKASLE KONTSEILUAK OHARTARAZI DU USAPeko EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA II AZTERKETARI BURUZKO NEURRI JUDIZIALEK UNIBERTSITATERAKO SARBIDEAN BERDINTASUN- PRINTZIPIOA ARRISKUAN JAR DEZAKETELA

Ikasleriaren ordezkaritza-organoak begi onez ikusten du EHUk iragarritako errekurtoa, eta ohartarazi du erabakiak unibertsitate publikorako sarbide-prozedura arrunta osorik bete duten ikasleak bazter ditzakeela.

Puede leer la nota en castellano [aquí](#).

Leioa, 2026ko ekainaren 30a – Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikasle Kontseiluak babesa adierazi dio unibertsitateak Bilboko Administrazioarekiko Auzien zenbait Epaitegik hartutako kautelazko neurrien aurka errekurtoa jartzeko erabakiari. Neurri horien arabera, auzitegietara jo duten pertsonei ez zaie Euskal Hizkuntza eta Literatura II irakasgaien lortutako kalifikazioa kontuan hartuko sarbide- eta onarpen-notak kalkulatzeko orduan.

Ikasle Kontseilutik aukera-berdintasuna defendatzen dugu unibertsitaterako sarbidean. USaPa ez zaigu erabat bidezkoa iruditzen, baina gaur egun guztiontzako aukera berak bermatu behar dituen mekanismo komuna da. Iñigo Ugedo Kontseiluko lehendakariak berriki adierazi zuen bezala, *«eztabaida daiteke hori benetan lortzen duen ala ez, baina hori da haren promesa: azterketa bera egitea, baldintza eta arau berberekin»*. Gutxienez funtzio komun hori beteko badu, irizpide objektiboak aplikatu eta indarreko araudia errespetatu behar dira, EHUk ikasle guztiekin egin duen bezala.

Hala ere, hartutako kautelazko neurriek, aukera-berdintasun hori bermatu beharrean, lehendik dauden desberdintasunak areagotu ditzakete. Bereziki larria da bazterrean utzitako irakasgaia Euskal Hizkuntza eta Literatura II izatea: euskara ez da hautazko edo bazter uzteko moduko irakasgai bat, gure herriko berezko hizkuntza eta euskal unibertsitate publikoaren funtsezko osagaia baizik. Erabaki horren ondorioz, pertsona batzuk nahitaezko irakasgai baten nota kontuan hartu gabe baloratuko dira, eta ohiko prozeduratik kanpo plazak gordetzera behartuko da.

Plaza kopurua mugatua den sistema batean, erabaki honek ez die soilik auzitegietara jo duten pertsonei eragiten. Ohiko prozedura bete duten ikasleak zerrendetan atzera bota ditzake, eta nahi duten titulaziotik kanpo utzi. Gainera, azkenean irregulartasunik egon ez dela ondorioztatuko balitz, galdera argia da: zer gertatuko litzateke benetan plaza horiek zegozkien baina kanpoan geratu ziren



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

ikasleekin? Ezin da balizko bidegabekeria bat beste bat sortuz zuzendu, ezta pertsona batzuk babestu gainerakoak babesik gabe utzita ere. Hori onartzeak aurrekari oso arriskutsua ezarriko luke: aukera-berdintasuna auzitegietara jotzeko aukera ekonomikoa duenaren arabera izatea.

Horregatik guztiatik, EHUKo Ikasle Kontseiluak babesa adierazi dio unibertsitateak iragarritako errekursoari, eta baztertu egiten du arau komunak hausten dituen, hirugarren pertsonak kaltetzen dituen edo euskara bigarren mailan uzten duen edozein irtenbide. Unibertsitate publikoa defendatzeak irizpide komunaren arabera sarbidea bermatzea eskatzen du, gaitasun ekonomikoaren ondoriozko pribilegiarik gabe, eta euskara gure hezkuntza-sistemaren funtsezko eta ezinbesteko osagaia dela onartzea.

EHUKo Ikasle Kontseilua



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Kontaktua:

ikasle.kontseilua@ehu.eus

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua

www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua